

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ideia Oarsoaldeako konexioak hobetzea da, izan ere, herri batetik bestera mugitzeko aukera murrizta da. Gure proposamena arazo hau konponduko duen bizikleta sare bat antolatzea da. Oarsoaldeko Oiartzun, Erreterria, Lezo eta Pasaia herrietan, zenbait parking ipiniko ditugu. Parkingak, herri hauetako auzo ezberdinetan jartzea pentsatu dugu eta helburua, herriarteko eta herri barneko garraioa hobetzea da.

Oarsoaldea Gipuzkoako iparraldean kokatuta dagoen eskualde bat da, 71.804 biztanle ingurukoa, 2018ko datuen arabera. Oiartzun ibaiak lotutako lau herriz osatua dago: Oiartzun, Lezo, Pasaia eta Erreterria. Egia da, Oiartzun eta Erreteriaren artean autobusa badagoela baina Oiartzundik Lezora edo Pasaia lau udalerrietara ez dago garraio bide zuzen eta publikorik.

Herri barneko mugikortasunari dagokionez, arazoa ere nabarmena da. Oiartzun adibidez, 8 auzo ezberdinetan banatuta dago. Arazoa beraz, auzo hauen arteko distantzia luzeetan oinarritzen da. Karrika, Gurutze eta Ergoien auzoen kasuan, garraioa ez dago erabilgarri, autobusen mugikortasunerako bide desegokiak baitira. Hori dela eta, bertako herritarrak kotxean soilik mugi daitezke. Egoera honen aurrean, bizikleta elektriko erabilera bikaina izan daiteke, bidegorrian zehar mugitzeko aukera izango bailukete. Pasaia kasuan, 4 udalerrietan banatuta dago: San Pedro, Antxo, Trintxerpe eta Donibane. Udalerrien erdian ordea, badia dago eta ondorioz, batetik bestera mugitzeko zailtasun handiak dituzte. Pasai Donibane eta San Pedroren artean adibidez, itsasontzi txiki bat ibiltzen da bidaiariak alde batetik bestera garraiatzen.

Lezo eta Erreteriaren herriarteko garraioari dagokionez, ez da beste herrietan bezain eskasa, izan ere, herrian bertan autobus sarea dago auzoak konektatzeko eta autobusak maiz pasatzen dira. Beraz, herri hauetako biztanleek ez dute besteetan bezalako arazorik herrian bertan mugitzeko kotxerik gabe. Ondorioz, herri hauetako puntu jakin batzuetan bakarri egongo dira bizikleten aparkalekuak. Horregatik, Lezo eta Erreterian zerbitzu hau inguruko herriekin komunikatzeko zuzenduta dago nagusiki.

Antolakuntzari dagokionez, Oiartzun, Erreterria, Pasaia eta Lezoko hainbat auzotan egongo dira bizikletak. Mugikorreko aplikazio bat egongo da, non bizikletarekin egindako ibilbidea ikusteko aukera, Txartelaren QRa, eta bizikleten kokalekuei buruz informazio gehiago eskuragarri egongo den. Gainera, aplikazioaren bidez txartela kargatzeko aukera izango da.

Erabilerraztasunari dagokionez, erabilzaileek txartel bat izango dute bizikletak eskuratu ahal izateko. Txartela eskuratzeagatik ordaindu beharko da, eta gero txartela ordura kargatu beharko da bizikletak erabili ahal izateko. Bizikleta erabiltzeko txartelean dirua sartu eta hau erabilpen orduen arabera xahutuko da. Txartela bai fisikoki eta bai mugikorreko aplikazioan digitalki egongo da. Horrez gain, diruz ordaintzeko aukera ere egongo da txanponekin, baina garestiagoa izango da.

Gainera, aplikazioan parking bakoitzaren logistika eta antolamendua agertuko dira. Honi esker, bizikletaz beste herri batera iristen garenean, zenbat eremu libre geratzen diren jakiteko aukera izango dugu edo zenbat bizikleta eskuragarri dauzkagun. Ibilbidea segurtasunez burutzeko, herrien arteko bideak mapa batean nabarmenduko ditugu. Azkenik, bizikletak elektrikoak izango dira, eta honek ingurune maldatsuak esfortzu txikiarekin gainditzen lagun diezaguke.

Gure proiektuaren beste balore bat **berritasuna** da, izan ere, orain arte ez da horrelako garraio sarerik egon gure eskualdean. Egia da, hiri batzuetan jada badaudela horrelako garraibideak eta gure helburua ideia hori gurera ekartzea da. Gainera, bizikleta elektriko hauek garraio jasagarri bat bermatuko dute, gaur egun pil-pilean dagoen klima aldaketa eta kutsaduraren egoera hobetuaz.

Azkenik, txirrindulariaren **segurtasuna** bermatzea behar-beharrezkoa da eta beraz, bizikleta bakoitzak kasko bat izango du erabilgarri. **Eskuragarritasunari** dagokionez aldiz, edozein adin tartetako pertsonentzat eskuragarria izango da. Gazteen kasuan, mendian bizi direnek herrira jaisteko modu bikaina dute. Bestalde, udarako egun beroetan, parrandan ateratzen diren gazteek, kotxea hartu beharrean edo gurasoei goizeko ordu txikietan deitu beharrean, modu erabilgarria izan daiteke etxera iristeko segurtasuna bermatuaz.